

“DINAMIKA GUZTIAK” KARPETAREN AURKEZPENA

Web atari honetan, Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren hezkuntzaraino kompetentziak nahiz talde prozesua lantzeko diseinaturiko programak aurki ditzakezu, hau da, 3 urtetatik 18 urte bitarteraino baliagarri zaizkizun ekimenak. Teknika eta erremintak dauzkazu bertan eta hauen helburu nagusia bizikidetzaz erraztea da, gazteek bizikidetzaz baikor baten alde trebetasunak eta balioak barneratzea.

Hala eta guztiz ere, atal honetan dinamikak, teknikak, erremintak, bakarrik eskaintzen dizkizugu, euren artean inolako loturarik gabeak; era honetan, zu zeu izan zaitezke diseinu horren arduraduna eta zure errelitateari egokien erantzuten saiatzen zarena.

Helburu bera lortzeko hainbat dinamika eskaintzen dizkizugu, nahiz eta denek ez duten modu berean erantzuten. Horregatik, garrantzitsua da zure talde/ikasgelari egokien erantzuten dion dinamika aukeratzea, taldek bizi duen unea kontutan izanda eta beraren ezaugarriak aintzat hartuta.

Hemen aurkeztutako dinamikak adibide gisa har ditzakezu, hau da, dinamizatzaileak bere errealitateari egokitzene saiatu daiteke eta beharko luke. Horregatik, batzutan, dinamika hauek ideia bat lantzeraz garrantzitate, zure esku dago beraz, ahal den modu eraginkorrean erabiltzea. Animo!

Bukatzeko, garrantzitsua da karpeta ezberdinak daudela esatea. Hauetako bakoitzean, izenburuak dioen helburua lortu ahal izateko, dinamika ugari topatuko dituzu (ez dago inolako sailkapenik, ez adina, ez erabilitako material, ez jolas mota, ez...).

- **ARDURAZ BIZITZEN IKASTEIA:** norberaren gorputza ezagutzeko, erabaki eta ekintzek norberaren osasunarengan, inguruko eta gizartearengan izan dezakeen eraginaz jabetzeko dinamikak jasotzen ditu.
- **IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASTEIA:** modu koherente, kritikoan pentsatzen lagunduko duten dinamikak dira eta terminoek duten benetako zentzua ulertzeko balio dezaketen dinamikak jasotzen dira bertan.
- **IKASLEAREN GIZA ALDERDIAK GARATZEN IKASTEIA:** hau da, aurkezpen dinamikak, finkatzekoak eta sentimenduak lantzekoak. Partaide diren pertsonak finkatzea ahalbideratzen duten jolas eta dinamikak (onartua senti daitezkeen, maitatuak, bai norbanakoa bai eta talde moduan ere) bai indibidualki bai eta talde moduan.
- **ELKARREKIN BIZITZEN IKASTEIA:** karpeta honetan alde batetik, kooperaziorako dinamikak jasotzen dira: partaideen arteko laguntza ezinbestekoak dira dinamika eta jolas hauetan; gainera, denen partehartzea beharrezkoa eta ezinbestekoa da helburu bera lortu ahal izateko. Eta bestalde, gatazken eraldaketa baiorra bulztatzene dituzten dinamikak

jasotzen diran. Dinamika hauetan gatazka mota ezberdinak plazaratzen dira eta partaideen helburua izango da egoera hauei aurre modu ezbiolento eta sortzailean erantzutea.

- **KOMUNIKATZEN IKASTEIA:** partaide diren lagunen artean komunikazioa sustatzeko dinamikak dira. Bestalde entzute aktibo sustatzen dute eta beste pertsonekin komunikatzeko beste modu batzuk ere azaleratzeko balio dezakete: komunikazio ez berbala adibidez (keinuen espresioa, kontaktu fisikoa, begirada, ...).
- **EGITEN ETA EKITEN IKASTEIA:** dinamika hauen helburua izaera ekintzailea garatzea, norberarenganako konfiantza, konpromisoak hartzeko sen kritikoa garatzea, eta erabakien alde ona eta txarrak baloratzeko gaitasuna lantzeak dira besteak beste.
- **GIZA ESKUBIDEAK:** egia da aurreko sailkapenaren baitan sartzeko aukera izan badagoela baina ekintza ezberdinak proposatzen dira GGEE arloa modu zuzenean lantzeko eta horregatik, sailkapen berezia egitea erabaki da.